

KANPOKO ENPRESEN ESKU UTZ DAITEZKEEN ETA UTZI EZIN DAITEZKEEN JARDUERAK

Enpresa baten arrakasta ez dago soilik produktu edo zerbitzu on bat eskaintzean; bere antolaketa estrategikoan ere oinarritzen da. Horregatik da hain garrantzitsua jakitea zein jarduera mantendu behar diren barruan —enpresaren nortasuna, ezagutza eta lehiakortasuna definitzen dituztenak— eta zeintzuk diren kanpoko profesionalen esku utzi daitezkeenak, baliabideak optimizatu eta eraginkortasuna handitzeko.

Enpresaren muineko jarduerak dira barruan mantendu beharrekoak. CANVAS ereduan, **funtsezko jarduerak** eta **funtsezko baliabide teknologikoak** izenarekin ageri dira. Hauek dira enpresak bereizgarri bihurtzen dituen elementuak, eta kanpora ateratzeak arrisku handiak ekarriko lituzke: informazio estrategikoa galtzea, kalitatearen kontrola murriztea edo lehiakideen aurrean desabantaila sortzea. Jatetxe baten errezeta sekretuak edo Coca-Colaren formula bezalako adibide ezagunek oso argi erakusten dute zer esan nahi duen “muina zaintzeak”.

Rainergy proiektuan ere antzera gertatzen da. Gure teknologiaren berrikuntza eta berezitasuna zehazten duten jarduera batzuk ezin dira beste inoren esku utzi. Hauek dira gure CANVAS ereduko jarduerak funtsezkoak:

- **energia sortzeko sistema propioaren diseinua,**
- **uraren aprobetxamenduaren modua eta mekanismo hidraulikoen garapena,**
- **elektronika eta softwarearen garapena,**
- **ikerketa eta berrikuntza teknologiko jarraitua.**

Jarduera horiek guztiak gure produktua egitera iristen den "ezkutuko makina" dira; gure ezagutza espezifikoak, gure bereizgarri teknologikoa eta gure marka posizionamendua, guztia bateratuta. Horiek gidatzen dute gure konpetentzia eta horregatik mantentzen ditugu beti barruan.

Aitzitik, badira produktua bera aldatu edo arriskuan jarri gabe kanpora atera daitezkeen jarduerak. CANVAS ereduan, hauek sarri **kanalak**, **bezero-harremanak** edo **laguntza osagarriak** dira. Jarduera hauek externalizatzeko eguneroko lanaren zama arintzen du eta baliabideak jarduera funtsezkoetara bideratzeko aukera ematen du, hau da, benetan balioa sortzen dutenetara.

Rainergy proiektuaren kasuan, kanpora ateratzeko egokiak diren jarduerak honako hauek dira:

- **Publizitatea eta marketina**, agentzia adituekin;
- **Sare sozialetako kudeaketa** eta marka-irudi profesionala sortzea;

- **Instalazioen garbiketa eta mantentze-lanak;**
- **Logistika eta garraioa**, gure produktuak bezeroaren instalazioetara eramateko enpresa espezializatu batekin lan eginez;
- **ekitaldien antolaketa**, aurkezpen edo demo teknikoetarako, eta beharrezkoa bada **catering** zerbitzuak.

Kanpoko enpresek espezializazio handia dute arlo hauetan, eta horrek aukera ematen digu lan profesionalagoak, bizkorragoak eta kalitate handiagokoak lortzeko. Horrela, guk gure energia guztiak gure teknologia garatzen jarraitzera bideratu ditzakegu, gure proiektuaren erdigunea ahalik eta sendoena izan dadin.

Amaitzeko, Rainergyren ikuspegi estrategikoa oso argia da: gure “DNA” teknologikoa eta balioa sortzen duten jarduerak geureganatuta mantendu, eta jarduera osagarriak externalizatu. Horri esker, berrikuntza, kalitatea, segurtasuna eta lehiakortasuna bermatzen ditugu, eta gure proiektua etengabeko hazkundean jarraitzeko posizio sendoan kokatzen dugu.

○